

Zergatik, nola, zertarako sufritu zuen Jesusek?¹

Jon Sobrino*

Gurutzea nabarmen dagoen Amerika Latinorako eta Hirugarren Mundu osorako, galdera ez da nola egin teologia “Auschwitz ondoren”, Europatik behin eta berriro errepikatzen den bezala, *Auschwitz*en egitea baino, hau da, gurutze beldurgarri baten erdian. Baina arazo hau garrantziko iruditzen zaigu gainerako mundu guztientzat ere, gurutze historiko honen erantzukizuna baitute neurri handi batean eta, edozer delarik ere, honen lekuko baitira –ez ahal dira soegile izango–.

Esan dezagun halaber Jesusen gurutzeak izan diren gurutzeetara bidaltzen duela, hauek, beren aldetik, Jesusenarena bidaltzen baitute, eta

–historikoki– Jesus zergatik hiltzen duten ulertzeko hermeneutika handia baitira, eta –teologikoki– Jesus zergatik hiltzen den misterioaren galdera ezin isildua berenez adierazten baitute. Jesusen gurutzea ulertzeko leku teologiko handia dira gaur Hirugarren Munduan gurutziltzatuak dauden herriak. Hirugarren Munduan nagusi den gurutzeak argitzen du Jesusen nekaldia eta heriotza –bere osoan– deskribatzeko izan den koherentzia.

1. Esatea [pertsekuzioa]: Jesusen bizitzako giroa

Eztabaida daiteke ea Jesus iraultzaile bat izan zen, zuzenean erlijio mailan eta zeharka maila sozio-ekono-

* Bilbotar teologoa, bizitza El Salvador-ren emana. Jesuita. San Salvador

¹ Jon Sobrinok HEMENerako idaztekoa zuen artikulu hau. Ezagunak diren gorabeherak medio, ezinezko gertatu zitzaion, eta *Jesucristo liberador* liburutik moldatu dugu, bere oniritziarekin (Trotta, Madril 1991, 253-296 orr.).

miko-politikoan, edo erradikaltzaile bat soilik Israelgo ondarrerik onenean. Eztabaidarik ez duena, ordea, da Jesusen predikua eta praktika mehatxu erradikal bat izan zirela bere garaiko botere erlijiosoarentzat eta zeharka botere zapaltzaile ororentzat, eta bote-reak erreakzionatu egin zuela. Jesus funtsean “gizona gatazkan” da (C.Bravo) eta horregatik izan zen esetsia. Gatazkan zegoen gizon honek traba egiten zuen, eta Romero apezpi-kuaren hitzen sotiltasunaz esanez, “traba egiten duena hil egiten da”. Jesus gatazkatsiak traba egin zuen, eta azkentasunez, beste jainkoei traba egin zielako eta traba Jainkoaren izenean egin zuelako.

Jesusek aukera *baztertzaile* bat proposatzen du. Baina aukera hau *borrokatsua* ere badenez –batek beste baten kontra egiten du–, ulertzekoa da erabat Jesus erasoa, zapuztua eta garbitua bada. Jainkotasunak (Jesusen Jainkoa eta idoloak) borrokan ari dira elkarrekin. Era berean, halaxe daude bitartekotzak (Jainkoaren erreinua eta antierreinua). Eta hortik, bitartekoak ere hala badaude (Jesus eta haren aurkariak): “*nirekin ez dagoena nire aurka dago*” (Mt 12, 30; Mk 9,40).

Hau da ebanjelioek argitasun osoz erakusten dutena, zuzendarien aldetiko etsaigoa noiz hasi zen zehaztasunez zertu ezin bada ere. Edozer delarik ere, tentaldia Jesusen bizitzako barneko

giro moduko bat izan zen bezala, esan behar da esetea izan zela kanpoko giroa. Jesusi “esetsia” titulua –hain garrantzikoa Amerika latinoan, esestearen masibotasunagatik eta krudeltasunagatik– eman lekiok.

Jesusen azkena ez zen izan halabeharrezkoa, prozesu historiko eta ezinbesteko baten bururatzea baizik. Eta hau azpimarratzea garrantzikoa da gaur egun gaurko martirien hilketek duten bururatze alderdia ulertzeko, eta historiako anekdota guztiz anker batera ez murrizteko, begi-bistan zegoen zerbait bezala ulertzeko baizik, historia bere hartan ankerra delako.

Ebanjelioetan esestearen erantzukizuna duten zenbait talde izendatzen dira: fariseuak, apez gorenak, legemakisuak, saduzeoak, herodestarrak, historiaren ikuspuntutik funtsezko erantzukizuna non kokatzen den finkatu behar bada ere. Jakingarriena da den-denek botere-motaren bat dutela, zuzenean ala zeharka: ekonomia, politika, erlijioa, ideologia, erlijioso-eredugarria, polizia-militarra... eta talde hauek guztiek bat egiten dutela esestean. Jesusen kontra erreakzionatzen duena errealitate osoa delako ezaugarria da hau berriro. Nabaria da gaur gertatzen denarekiko analogia, eta garrantzikoa da hori azpimarratzea, Jesusek aukera hauetan guztietan berdina ez litzatekeen patu aparteko bat jasan zuela pentsa ez dezagun.

Esesterako aipatzen diren zergatiak mota askotakoak dira: historikoak batzuk, teologizatuak beste batzuk (batez ere Joanengan). Baina, azken finean, Jesusek botere zapaltzailearen kontra –botere erlijiosoaren kontra zuzenean, haren kontura zuritzen baitziren besteak– egindako salaketak baino ez dira. Esestea sortzen da Jesusek zapaltzailei erasotzen dielako (neurri historikoa), hauek, beren aldetik, Jainkoaren izenean (neurri transzendentea) zuritzen baitzuten zapalketa. Eta haiek erasotzean biktimak defendatzen ditu.

Eseste egiazko, iraunkor eta gero eta handiagoak objektiboki erakusten du “gatazka ez dela puntuala, ez-funtsezkoa”², eta, subjektiboki, “Jesusek era gero eta argiagoan bereganatzen duen... ez bakarrik jasaten, baizik eragiten duen”³ prozesu bat dela. Garbi uzten du honek ezen Jesusek azken beltz tragiko posible baten kontzientzia eduki beharko zukeela. Eta hau garrantzizkoa da Jesusek zuen askatasunaz eta, azken batean, Jesusen maitasunaz jabetzeko. Baldin gurutzeari, Hebertarren, Pauloren eta Joanen teologia goitiarretan, maitasunaren adierazpen izango bada, horren froga historiko bat da –hain ugaria gure egunotan– Jesusek gatazkan iraun egiten duela, ondorioen jakinaren gainean. Eta honekin hurrengo atalean sartzen gara.

2. Jesusen kontzientzia esestegaraian

Jesusek bazekien Herodesek, sanedrinarik eta erromatarrek bazutela hiltzeko ahalmena eta bere kontrako esestek hartara eraman zezakeela. Hala eta guztiz ere, irmo iraun zuen gatazkan, eta horrek Jainkoari zion leialtasuna eta gizakienganako bere errukiaren azkenerainokotasuna baieztatzen ditu.

Ikuspegi historiko batetik, Joan Bataiatzaileari gertatu zitzaionetik agertu zitzaion Jesusi azken tragiko posible baten beldurra. Ez dago zalantzarik Jesusek ezagutu zuela Joanek Herodesen eskuetan izan zuen indarke-riazko azkena, eta horrek zer pentsaturik eman behar izan zion, noski. Egia da “herodestarrak”, Jesusen etsai zirenez, oso gutxi azaltzen direla ebanjelioetan, baina jendeak bazekien Jesus Joanen taldean hasia zela eta hark bataiatu zuela, eta Herodesek berak izan zuen Jesusen berri, eta Jesus Joan Bataiatzaile berpiztua ote zen zenbaiten zurrumurruarekin lotzen du hori Markosek (Mk 6, 14).

Bataiatzailearen indarrezko heriotzak Jesusengan eragin zuen zirrara sakonaren ziurtasuna adierazten dute Mateok eta Markosek, eta Jesusek bereztako iragarpen bezala uler zezakeen hori. Egiaz, haren heriotzaren berri izan

² C. Bravo, *Jesús, hombre en conflicto*, Sal Terrae, Santander 1986, 237. or.

³ *Ib.*, 237. eta 239. or.

ondoren, leku bakarti batera erretiratzeko da Jesus (Mt 14, 13; Mak 6, 30). Mateoren esanetan, Jesusek jada itzulia den Elias bezala aipatzen du Bataiatzailea eraldaketaren pasadizoan (Mt 17, 13). Eta esaten du “*nahi dutena egin dutela harekin*”, eta gauza bera egingo dutela Gizakiaren Semearekin (Mt 17, 12). Jesus jakitun da, gainera, Joani gertatua ez dela halabehar hutsa, baizik profeten patua dela, zenbait testuk argitzen dutenez. Eliasen eta Eliseoren porrota gogoratzen du (Lk 4, 25-27), profetak esesten eta hiltzen dituztenak salatzen ditu (Lk 11, 50; Mat 23, 34) eta gaitzesten du Jerusalem “profetak hiltzen dituzuna” (Lk 13, 34; Mat 23, 37). Joanengan bere bizia ardiende ematen duena da artzain ona (Jn 10, 11.15).

Jesusek, beraz, esatea jasan zuen, bazekien zergatik jasaten zuen eta nora eramanez. Eta esate horrek, jakinaren gainean bereganatua denez, Jainkoarekiko zuen leialtasunaren neurria erakusten du. Ez bakarrik pobreei itxaropena aldarrikatzen eta zapaltzaileak gaitzesten dituen gizaki bezala azaltzen da, baizik, Jainkoaren borondatea hori delako, esatea gorabehera, hartan irauten duen gizaki bezala. Azken heriotza indarrezkoa ez zaio gainera etorriko apetzako patu bat bezala, horizontean beti begien aurrean edukitakoa bezala baizik.

Gertakari hau izango da gero haren heriotza askatasunez onartua bezala

eta, hartaz, maitasun-adierazpen bezala ulertzeko aukera emango duena. Baina halaber erakusten du Jesusek ezagutzen dituela eta bere egiten dituela jainkoei borroka eta profeta hiltzen duen historiaren indar ezkorra. Jerusalemeko bidea, esesteagatik ere eta haren bidez, da Jesusen leialtasunaren itzulpen geografikoa jainkoei borrokarren barruan.

3. Jesusek bere heriotzari eman zion esanahia

Jesus jakinaren gainean zegoen esesteak heriotzara eramanez, baina galdetu egin behar da areago zer pentsatu zuen berak heriotza horri buruz, ez baita azaltzen Jesus ameslari fanatiko bihurtu bezala, ezinbestean horri buruz pentsatu behar zuen gizon arrunt bezala baino. Eta, zehatzago oraindik, baikorretik zer –baldin zerbait– ikusi zuen era horretan hil ahal izatean; hau da, zer –baldin zerbait– zekarkion indarrezko hiltzeak Jesusen kausari, Jainkoaren erreinuari, eta nola uztartzen zen indarrezko hiltze hori Jainko “Aitarengan” ipinia zuen ustearekin.

Hasiera bertatik esan dezagun Jesus historikoak ez zuela ulertu bere heriotza salbamenezko eran, Itun Berriak geroago landu zituen eredu soteriologikoen arabera: espiaziozko sakrifizioa, ordezkoko satisfazioa... “Ez nekaldiaren hitz-erdikako iragarpenek

(Mt 12, 39 par; Lk 12, 50; 13, 32-33; Mk 10, 38-39), ez berariazkoek (Mk8, 21 par; 10, 32-34 par), ez dute inondik ere aipatzen bere heriotza salbagarria edo espiaziozko sakrifizioa denik”⁴. Bestela esanda: ez dago daturik Jesusek bere heriotza propioari zentzu erabateko transzendentea eman ziola pentsatzeko, gerora Itun Berrian egin zen bezala. Horrek ez du esan nahi, ordea, Jesusek bere heriotzari zentzu bat bilatu ez zionik, hartan bere kausarekin jarraian eta bere kausaren alde zegoen zerbait ikusi ez zuenik. Horrela egin dute profeta guztiek, erlijiosoek edo ez erlijiosoek, ezinezko baita guztiz hiltzea eta inolako profetak ez baitu onartzen bere kausa guztiz hil dadin. “Jesusek ez du etsitzen 'idatzita dago' batekin, baizik bere esku jarri duen paperean azkeneraino iraun dezan eskatzen dion bere Aita Jainkoaren nahia hautematen du. Nahiz badirudien heriotza ez dela izan berak 'nahia' ezta 'desiratua' ere, erro-erroko leialtasunaren bide bezala begiratu da argitasunez”⁵.

Ebanjelioetako testuetan ezin aurki daiteke zalantzarik gabe Jesusek bere heriotzari eman zion zentzua, testu hauetan gehienak pazko osteko egoerak koloreztaturik aurkitzen baitira, orduan jada Jesusen heriotzari salbamen-neurri transzendente nabarmen-

na ematen baitzitzaion. Halere, badaude Jesusek pentsatzen zuenaren aztar-nak: azken afariko kontakizunean laburbilduko ditugu, baina afaria ez berezi bezala hartuz, bizitza osoarekin loturik baino.

Oro har, azken afariko kontakizunak liturgikoak dira, baina azpidoinu historiko batean. Ikuspuntu historiko batetik, erabaki daiteke Jesusek, bahitu zuten bezperan, afari hotsandiko bat antolatu zuela, hura bedeinkazio batez, keinu batzuez eta azken agurreko hitzaldi batzuez osatu zuelarik. Hitzaldi hauek, beren forma literarioarengatik berarengatik —“testamentuaren era”— “agurtzen den pertsona baten borondatea azaltzen dute, ahal delarik bizirik jarraitzeko borondatea, beretarren artean bere iraupena segurtatu nahia”⁶.

Historikotasuna ziurtaturik daukan testu batean, Jesusek dio: “*Benetan diotsuet ez dudala gehiago ardorik edango Jainkoaren erreinuan ardo berria edango dudan egunera arte*” (Mk 14, 25 par). Hitz hauekin heriotzaren ziurtasuna adierazten du alde batetik, eta bestetik bere itxaropen pertsonala. Jesusek bere bizitzaren azkena partekatu nahi du eta bere kausa berresten du. Jesusek ez du zehazki esaten *zertan* datzan bere heriotzaren esanahia, baina baiesten du bere herio-

⁴ E. Schillebeeckx, *Jesús. La historia de un viviente*, Cristiandad, Madril 1983², 284. or.

⁵ X. Léon-Dufour, *Jesús y Pablo ante la muerte*, Madril, 96. or.

⁶ R. Aguirre, *La cena de Jesús: historia y sentido*, Madril 1986, 21. or.

tza ez dela zentzugabekeria bat, ez baitu bere itxaropena deuseztatzen –Jainkoaren erreinuko hitzetan formulatzen baitu gainera–, eta hori Aitarengan jarria daukan konfiantzarekin bat dator.

Bere kausarekiko bere heriotzak duen zentzu baikorra da eukaristiaren sorrerari buruzko testuek adierazten dutena. Oro har esanik, bere heriotza “on” den zerbait izango da beste batzuentzat, guztientzat. Lau testuetako salbamen-zergati guztiak bildurik, azkenik idatzita geratu diren bezala idatzita, haietan esaten da ogia –gorputza– “*zuentzat emana*” dela eta ardoa -bere odola- “*askorentzat isuria*” dela, “*bekatuen barkamenerako*”, “*itun berri*” bezala. Esan dugu jada ulermolde hau pazko ostekoa dela, baina haren salbamen-zentzu baikor orokorrak badu, noski, muin historiko garrantziko bat, Jesusek bere heriotzari buruz pentsatu zuena iradokitzen duena. Erabakigarria da Jesusek baiesten duela bere bitza dela “-tako”, beste”en mesedetan” (*yper*) eta horrek ondorio baikor bat eragiten duela gainerakoengan.

Honen guztiaren arabera, bere heriotza zerbitzu bezala ulertzen du Jesusek, bere bizitzaren jarraitze eta burutze bezala. Bere heriotza, bada, ez da ez zentzugabe ez alferrikako den zerbait, ez beretzat ez gainerakoentzat. Zuzenean, Jesusek zerbitzu-bizitza

baten zentzua eskaintzen die gizaki guztiei, eta hori da bere ikasleei proposatzen diena.

Zehaztu ahal daiteke gehiago zein zentzu eman zion Jesusek bere heriotzari? Ez da uste izatekoa inolaz ere Itun Berriak gero garatuko dituen eredu teorikoetan bilatuko zuenik: ordezeko satisfazioa, espiaziozko sakrifizioa, etab. Beste gauza bat da garbi geratzen dena. Jesus bere heriotzara doa jakinaren gainean eta konfiantzaz, Jainkoarekiko azkenerainoko leialtasunez eta bereekiko zerbitzuaren adierazpen bezala. Konfiantzaz doa Jesus heriotzara eta azken zerbitzu-eginkizun bezala ikusten du, eredu eraginkor eta akuilatzaile bezala gehiago besteentzako salbamen-tresna bezala baino. Azkeneraino leial izatea, hori da gizatiar izatea.

4. Jesusen heriotza bere egitekoaren ondorio bezala

Zergatik hiltzen duten Jesus, garbi geratzen da ebanjelioetan. Hiltzen dute –beste hainbat bezala bere aurretik eta bere atzetik– bizi zen bezala bizi izan zelako, esan zuena esan zuelako, eta egin zuena egin zuelako. Honetan ez dago misteriorik batere Jesusen heriotzan, hala gertatzen baita sarri. Baina bada horretan izugarrizko tragedia bat, baina ez lehen neurrian Jesusi gertatu zitzaiolako –Jainkoaren Seme bezala aitortua izango baita–, baizik gizaki

askori gertatzen zaiolako –Jainkoaren seme-alabak haiek ere–. Hiltzen dutena Jainkoaren Semea izateak paregabeko sakontasuna gaineratzen dio tragediari, baina ez da haren lehen adierazmoldea.

Jesus hiltzen dute traba egiten zuelako, noski. Baina garbi eduki behar da “traba” hori traba osokoa dela, ez kategoriala bakarrik, hauei edo besteei egindako bere salaketak. Gisa zehatz batean haragi hartu zuelako egin zuen traba, eta ez –erraztasun gehiegiz esan ohi den bezala– “munduan” haragi hartu zuelako, baizik eta antierreinu den, erreinuaren kontra diharduen mundu batean haragi hartu zuelako. Mundu horretan, eta ez beste batean, haragi hartu zuen Jesusek, mundu horren kontra jardun zuen ezinbestean –erreinuaren izenean– eta mundu horrek Jesusen kontra erre-akzionatu zuen ezinbestean. I. Ellacuriak dioenez, “Jesusek eta bere etsaiek giza bizitza era kontrajarrian zuzendu nahi duten bi osotasun desberdin ordezkatzeko dituzte; bi osotasun praktikoko dira, kontraesana egunoroko bizitzara daramatenak”⁷. Gertatzen dena da osotasuna (Jainkoaren erreinua) egunorokoan adierazten dela, Jesusen bizitzako gauza konkretuetan, baina hauek, beren aldetik, osotasunaren, Jainkoaren erreinuaren adierazpen direla. Horregatik, osotasunetik begiraturik,

Jesusen kontrako epaiak oso logikoak dira eta ebanjelio-idazleek egindako ukituak ere oso ongi hautatuak daude.

Auzi erlijiosoan, apaizburuek Jesus epaitzeko aipatzen dute Jainkoa, eta Jesusek birao praktikoko batez erantzuten die: “Zapalketa zehatzak hautsiz aipatzen dut nik Jainkoa”⁸. Horrekin esaten die, badirela bi modu Jainkoa aipatzeko, eta batez ere badirela bi Jainko aipatzeko, bata bestearen aurkakoak izan ere. Horrela, Jesusek Jainkoari buruzko bere argitzapen-bideari jarraitzen dio, eta oraingoan bere heriotzarekin egingo du argitzapena: badira jainkoak heriotza dakartenak. Eta konklusioa ikaragarria da: “Gurutzea bera ez dago ulertzerik judu jainkozaleen eskuhartzeagatik ez bada”⁹.

Auzi politikoan, Zesarren etsai izatea leporatzen diote Jesusi, eta horri buruz ez da mintzo Jesus ebanjelioetan. Baina egia dena da, Jesusek ez duela ikusten *pax romana* delakoan –zerbait jakingo zuen inperioko errealitateaz– Jainkoaren araberrako mundu bat, eta bere bizitza, ezaguera gehiago edo gutxiagorekin puntu honetan, objektiboki horren kontra zihoan. Hortik, Jesusen heriotza errakuntza tamalgarri bat ez izatea, Bultmann-ek uste duenez, premia bat baizik.

⁷ I. Ellacuría, “Por qué muere Jesús y por qué le matan”, in *Diakonia* 8 (1978), 65-75 orr.

⁸ Ch. Duquoc, “El Dios de Jesús y la crisis de Dios en nuestro tiempo”, in *Jesucristo en la historia y en la fe*, 49. or.

⁹ E. Käsemann, *La llamada de la libertad*, 1985², 38. or.

Jesusen heriotza ez zen errakuntza bat izan. Bere bizitzaren ondorio izan zen eta hau, bere aldetik, heriotza ematen duen antierreinu batean bere haragi-hartze konkretuaren ondorioa —bere biktimak babesteko—. Baldin bere heriotzaren ondoren ezer gertatu izan ez balitz, baldin berpiztearen ondoren sortu izan ez balitz fedea Jesus horrengan, bere azkena beste hainbatena bezala jasoko zukeen historiak. Gizon zuzen eta errugabe baten heriotzaren zergatiak iraugo zukeen, noski, eta, azken batean, heriotza oren zergatia. Eta erantzuna, gisako galderak egiteko ausardia duenarentzat, izango litzateke soilik: halaxe da historia. Gizaki erlijiosoak gainera zezakeen: “Aitor dezagun, bekatuak baduela ahalmen bat, Jainkoarena baino handiagoa”.

Baina ez zen izan horrela Jesusekin. Bere ikasleek esan zuten bizi zela, eta bizi zela eta bizi dela betetasunean. Badirudi baieztapen honekin ez legokeela Jesusen heriotzaz gehiago galdetzen segitu beharrik. Baina guztiz kontrakoa gertatzen da: hain zuzen ere berpiztearen ondoren Jainkoaren Semetzat aitortua izango delako, zorrotzagoa egiten da heriotza horren zentzuari buruzko galdera; zergatik hiltzen da Jesus.

5. Gurutzearen “argitzea” Jainkoaren misterioan

Jesus zergatik hil zen galderari, lehen kristauek hemen era logikoan, ez

derrigor kronologikoan, azalduko ditugun zenbait erantzun eman zizkioten.

Lehen urrats bat izan zen gurutzea profeta baten patutzat hartzea (1 Ts 2, 14 hh.); Erm 11, 3), ebanjelioek ere beren aldetik azalpen hori hartuko dutelarik (Mt 23, 37; Mk 12, 2 h). Ulertzekoa da azalpen hau, Israelgo tradizioan oinarritua baitago eta elkarte kristauen lehen esetsaldiak argitzen baitituzte (hala 1 Ts 2, 14 hh.).

Gurutzearen azalpenean urrats berri bat eman zen Idazteunetan iragarria zegoela baieztatzean. Garrantzi handiko argudiatze teologikoa da hau fede judutik zetozen kristaudentzat eta beharrezkoa haien apologetikarako juduen aurrean mesias “gurutziltzatua” predikatuzera azaltzen zirenean. Zergatik harritu mesias gurutziltzaturik hil zela-eta, Idazteunetan jada iragarria bazegoen? Horren oihartzuna sumatzen da Emausko ikasleen pasarte ederrean: “*Bai buru gutxikoak zaretela, bai motelak profetek esan zutena sines-teko! Ez ote zuen Mesiasek hori gutzia sufritu behar bere aintzara iristeko?*” Gisako argudiatzeak goiz sortu behar izan zuen, 1 Korintoarrak 15, 4 testu oso zaharrean azaltzen baita jada: “*Kristo gure bekatuengatik hil zen, Liburu Santuek esan bezala*”.

Beste urrats bat gehiago ematen da, teologalena: Jesus hiltzen da “*Jainkoaren asmoaren eta aurrez erabakia-*

ren arabera” (Eg 2, 23; 4, 28). Gehiago oraindik, gurutzea “*beharrezkoa zela*” esaten da (Lk 24, 26; Mk 8,31), eta adierazmolde hori hitz tekniko bihurtzen da gurutzearen zergatia azaltzeko. Gurutzearen azalpena Jainkoarengan berarengan kokatze hau ongi aztertu behar da. Itun Berriak egiten duen planteamendua oso zintzoa dela deritzogu, izan ere, alde batetik gurutzearen zergatiaren argibide sinisgarria ematen duela dirudien une berean, uko egiten baitio argibide orori: zergati horrek Jainkoagan bakarrik dauka erantzuna. Eta, bestetik, gurutzeak zentzu bat izan dezakeela esatean –Jainkoagan bakarrik bada ere– zentzugabea dena historiari buruzko azken hitza ez den itxaropena adierazten du. Baina itxaropen horrek ez dauka iturburutzat misterioaren “jakitea”, baizik “fedea” xede konkretu hori duen Jainko horrengan.

Garbi geratzen da gurutzearen zergatia Jainkoarengan kokatzea zertan den baikor, baina badu zerbait arrisku-tsutik ere. Normala da kristauek zergati horri erantzun bat bilatzea, erantzun batek, izan ere, beti ematen baitio bake-moduren bat adimenari eta baretasuna psikologiari, gauza eskandalagarrietan izanda ere. Ezjakintasunetik jakitera pasatzea beti sumatu ohi da aringarri bezala. Arriskua datza, ordea, zergatiari erantzun propio bat emanez –Jainkoaren xedea, alegia–, gurutzearen eskandaluari zailtasunak kentzean,

esan dugun bezala; azken batean, izan ere, esplikazio bat izango luke hartara. Eta arrisku handiagoa dauka oraindik –anselmianismo guztiek erakusten duten bezala– jakin nahi izatea zer eta nola Jesusen gurutzea Jainkoagan zerbait logiko eta are beharrezko bihurtzen den. Hala balitz, Jesusen gurutzeak ez luke Jainkoari buruz ezer argituko, ez luke ezertan lagunduko Jainkoa ezagutzeko. Aldez aurretik ezagutzen den Jainkoak emango luke bide gurutzea argitzeko, baina gurutzeak ez luke ezer esango Jainkoari buruz.

6. Eskandalu den gurutzetik salbamen den gurutzera

Itun Berrian esaten da Jesusen gurutzea salbamenezkoa dela, eta hori argitzeko, teologoek eredu teoriko ezberdinak baliatzen dituzte, batzuk ezagunagoak (sakrifizioa, ituna), beste batzuk ustekabekoagoak (morroiaren ordezkio satisfazioa), beste batzuk erabili gabeak (legetik askatzea). Halere, eredu horiek, argitu, ez dute ezer argitzen, eta horregatik zehaztu egin behar da, gutxienez, ea azken batean zer esan nahi zuten salbamena gurutzetik zetorrela esaten zutenean, eta gaur zer esan diezagukeen horrek.

Ezer baino lehen azpimarratu behar da Itun Berriak ez duela esaten gurutzea mingarri delako denik salbagarri. Esan nahi baita: Itun Berriak ez du esaten –eta are gutxiago horretara muga-

tzen— sufrimendua izan delako gertatu dela salbamena, eta, beraz, dolorismoak eta masokismoak ez dute Itun Berrian zuribiderik han, eta oraindik gutxiago Jainkoak norbaiti kostu handiko ordain-sari bat ordaindu behar izan zioneko ideiak.

Itun Berriak benaz azpimarratzen duena da —eta honetan bada zerikusipuntu bat sakrifizio eredu teorikoaren logikarekin— Jesus atsegingarri izan zitzaiola Jainkoari, eta horregatik Jainkoak onartu zuela, opariak ere, eraginkorrak izateko, Jainkoari atsegingarri izan behar zaizkion bezala eta Jainkoak onartuak izan behar duten bezala. Hala bada, Itun Berrian Jainkoari atsegingarri izan zaiona Jesusen bizitza osoa izan da —Hebertarren gutunaren hitzetan, leialtasunezko eta errukizko bizitza bat— eta Jesusen gurutzeak nabarmentzen duena da, inolako zalantzarik gabe, halakoxea izan dela Jesusen bizitza. Itun Berriak esaten du lurraren gainean Jainkoari atsegingarri zaiona azaldu dela, azkenerainoko maitasunezko bizitza bat azaldu delako.

Maitasunak sufrikariorik pasatu behar duela, konbikzio historiko pilatua da. Galde liteke —edo protesta liteke— gauzak zergatik diren horrela, baina horrela dira, eta horregatik, besteenganako errukia egin eta salbatu nahi duenak, sufritzeko prest egon behar du. Intuizio hau batzuetan anker

diren eratan adieraz daiteke: “odola isuri gabe ez dago salbamenik”, Elizako Gurasoek esaten zuten bezala, edo eredu teoriko argitzaitzat har daiteke, ez izan arren, azpimarratu dugun bezala. Baina edozein delarik ere formulatzeko era, intuizioak bere hartan segitzen du. Horregatik hein batean ulertzekoa da, gizakiek salbamena odola isurtzearekin lotu izana eta, horrela, sakrifizioarekin. Salbazioak beti esan nahi du hautsi den zerbait berriro konpontzea, eta berriro konpontze hori kostu handikoa da historikoki. Desegina egiaz konpontzen duen salbamen orok berarekin duen nekagarriaren sinbolo da “odola”.

Egin behar ez dena da maitasuna eta sakrifizioa kontzeptu mailan egokitzea, eta are gutxiago oraindik Jainkoak atsegin hartzen duela eta Jesusen gurutzeko oparia eskatu ere eskatzen duela esatea. Gurutzea, maitasunaren laguntzaile historiko beharrezkoa denez, haren betetasun historikoari datxekio, eta Jainkoak maitasunaren betetasun honetan hartzen du atsegin. Horregatik, Jainkoari atsegin zaiona ez da zerbait puntuala: haragi-hartzea, jite greziarreko teologian, edo gurutzea, jite latinokoa. Jesusen bizitzaren osotasuna, ez haren uneetako bat, da Jainkoari atsegin zaiona.

Galde daiteke orain salbamenari dagokionez zenbateko garrantzia duen guretzat Jesus “Jainkoari atsegin zaio-

na” izatea. Hartaz, baldin Jainkoari atsegin zaion hau ez bada halabeharrezko zerbait, eta oraindik gutxiago ankerra den zerbait, orduan Jainkoak gizakia izan dadin nahi duen hori lurrean azaldu izana da salbamena: “*Gizaki hori, irakatsi zaizu zer den ona, zer nahi duen Jaunak zuregandik. Hauxe: zuzenbidez jokatzea, on izaten saiatzea, eta zure Jainkoarekin apaltasunez bizitzea*” (Mi 6, 8). Gurutzeraino leial den Jesus salbamen da, orduan, zentzu honetan bederen: *homo verus* delakoaren, gizaki egiazko eta zintzoaren errebelazioa da, “*on eginez igaro*” zena, “*leial eta errukitsua*”, “*ez zerbitza dezaten baizik zerbitzatzer*” etorri dena.

Gizatiar egiazkoa errebelatu izana bera, uste guztien kontra, berri ona da jada, eta horregatik, salbamen da bere hartan: gizakiok badakigu orain zer garen, guk geuk bekatuaren bidez bahiturik daukagun guri buruzko egia askatuta geratu da. Eta gizatiar egiazko horren muina Jesusek gizakiekiko duen maitasun handia denez, orduan esan dezakegu izan badela maitasuna eta lur honen gainean ez bakarrik azaltzen dela gaizkia, baizik maitasunak ere inguratzen gaituela. Beste kontu bat da zein bortitza datekeen maitasun hau; baina gutxienez –eta gutxien hori gehien bat da– gizakiek ikusi ahal izan dute maitasuna lurrean, jakin zer diren eta zer izan behar duten eta zer ahal duten.

Amerika latinoan sarri gertatzen den bezala, martirien aurrean, gizakiek maitasunik izan dela hautematen dute, berri on bezala hautematen dute, sakonki gizatiartzen duena bezala. “On da gizakientzat Romero apezpikua lur honetatik pasatu izana”. Eta igartzen dute hari jarraitzeko dei bezala –gogora azken afariko “testamentu erako formula”: bera bezala zerbitzari izateko testamentua uzten digu Jesusek–. Honen arabera, Jesusen gurutzea bere bizitza osoaren bururatzeko bezala salbamen gisan uler daiteke. Salbamenezko eragin hau gehiago agertzen da kausa eredugarri bezala kausa eragile bezala baino. Baina horrek ez du esan nahi eragile ez denik: hor dago Jesus, leiala eta errukitsua azkeneraino, gizakiak beraien gan *homo verus* delakoa, egiazko gizatiarra errepikatuzera gonbidatuz eta bultzatuz.

7. Jainkoaren maitasunaren sinesgarritasuna

Orain arte esandakoa ez da azken hitza Jesusen gurutzearen salbamezko eragingarritasunari buruz, ezta bereziena Itun Berriak egiten duen gurutzearen ulermoldeari buruz ere. Itun Berrian salbamena Jainkoarengandik berarengandik dator, eta horregatik galdetu egin behar da ea zer esaten duen Jesusen gurutzeak azken batean Jainko salbatzaileari buruz.

Ezer baino lehen, Itun Berriak ez du esaten Jesusen bizitza eta gurutzea beharrezkoak zirenik Jainkoaren jarraira gizakiekiko aldatzeko, arrazoiz haserreturiko Jainkoa dagokion Jainko baretu bilaka zedin. Ez odol isurtzeak eska zezakeen eta ezta Jesusen, Jainkoari atsegin zitzaionaren, agertzeak behartu behar zuen. Itun Berriko baiespena ausarta eta harrigarria da: Jainkoak berak hartu du Jesusengan era salbatzailean presente egiteko ekimena, eta Jesusen gurutzea ez da orduan Jainkoari atsegin zaiona bakarrik, Jainkoak bere burua gizakientzat atsegingarri bezala adierazten duen lekua baizik. Kontua ez da, beraz, kausalitate eragilea, kausalitate sinbolikoa baino. Jesusen bizitza eta gurutzea Jainkoak gizakiei dien maitasuna adierazten eta ahalik eta posibleen bihurtzen duen lekua da. Ez da Jesusek Jainkoa aldaraiziduela, baizik Jesus dela sakramentu historikoa non Jainkoak gureganako salbamen-aldaketa ezeztazina adierazten duen: *“Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion”* (Jn 3, 16); *“Hara nola agertu den Jainkoaren gureganako maitasuna: Jainkoak bere Seme Bakarra bidali zuen* (1 Jn 4, 9). Itun Berriaren azken hitza Jesusen gurutze-ari buruz da han agertu dela Jainkoaren maitasuna.

Hauxe da Itun Berriko baieztapen nagusia. Baieztapen honek ez du ezer “argitzen”, baina dena esaten du.

Jesusen bizitzan eta gurutzean azaldu da Jainkoaren maitasuna. Eta gisako zerbait sumatu daiteke historian. Sortzen dira mugarik ez duten maitasunak, eta erakusteko modurik garbiena da maitasunerako ezer oztopo bihurtzen ez denean. Baldin bere herriaren kausa alde dezan ama batek seme-ari librokio joaten uzten badio –galduko duela alde aurretik ikusten badu ere–, gauza asko pentsa ahal izango da ama horren kontura, baina ezin zalantzan jarri ahal izango da ama horrek bere herria maite duela. “Nahi duzuen egin dezakezue zuek, baina guk zuek maitatzen segituko dugu. Sar gaitzazue espetxean, eta hala eta guztiz ere guk maitatu egingo zaituztegu. Jaurti bonbak gure etxe gainera, mehatxatu gure semeak, eta, zaila izanda ere, maitatu egingo zaituztegu oraindik. Bidali hiltzaileak gure etxeetara gauerdiko ilunpetan, jo gaitzazue, eta, hiltzorian egonda ere, guk maitatu egingo zaituztegu” (Martin Luther King).

Zer esaten du, beraz, Jesusen gurutzeak? Esaten du Jainkoa era ezeztazinean hurbildu dela mundu honetara, Jainkoa “gurekin” dela, eta Jainkoa “guretzat”. Eta hori argitasun handienaz esateko Jainkoa “gure nahierara” izatea onartzen du. Hauxe da Itun Berriko egileek ikusi zutena. Ez dago hemen logikarik, fedea baizik. Ulertzekoa da lehena entseatu bazuten, lehen ikertu ditugun eredu teorikoak eskainiz, baina bigarrenare-

kin amaitu zuten: Jesusen gurutzea salbamenezkoa da, han azaldu baita adierazmolde gorenean Jainkoak gizakiei dien maitasuna.

Bada zerbait maitasun garbi eta sinesgarrian, ahalmenik gabeko izan arren –paradoxikoki– maitasunaren indarrean –maitasun denez– itxarope-

na sortzen duena. “Etorriko da askatasuna erdietsiko dugun eguna, eta ez bakarrik guretzat: zuek garaituko zaituztegu, zuen bihotzak konkistatuko ditugu, eta era horretan bikoitza izango da gure garaipena” (Martin Luther King). Era horretan, Jainkoak bere maitasuna erakutsi nahi du gurutzean, eta horrela, gu salbatu.

Euskaratzailea: Pello Zabaleta